



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2010-10-16**

VIII. URTEA 2.101. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Topic-en aurkeztu zuten urriaren 29an hasi eta azaroaren 1ean amaituko den nazioarteko txapelketa. I. TERRADILLOS

## San Estebango etorkizunaz eztabaidatu dute

**TOLOSA** Datozen urteetan auzoan egingo diren lanen inguruko zalantzak argitzeko hitzaldia egin zuten Kultur Astearen baitan 4

## Txintxarri abesbatzak abestia estreinatuko du

**ALEGIA** Urriren 24ko Txintxarri Egunean entzungo da Xabier Sarasola eta Felix Irazustabarrenaren 'Pausoz pauso...' kanta 7

## 24 ABESBATZEN ARTEAN HIRU EUSKAL TALDE

**TOLOSA** Herriko Hodeiertzek Oroithekin batera hartuko du parte; Gasteizko Crescendo Haur Abesbatza ere entzun ahal izango da 2





Esker-eskuin, Mikel Irizar Kutxako ordezkaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria eta Frantxis Lopez Landatxe Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria, atzo Topic-en eginiko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

# Hiru euskal talde ariko dira 42. Abesbatza Lehiaketan

**Kultura** » Crescendo Haur Abesbatza eta batera ariko diren Hodeiertz eta Oroith; guztira 24 abesbatza izango dira urriaren 29tik azaroaren 1era.

**INIGO TERRADILLOS**

Kulturari buruz ari bagara, udazkena aberatsa izan ohi da gurean. Bai, behintzat, Jokin Bildarratz Tolosako alkatearen arabera. Eta hori horrela bada, hein handi batean, Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa da erantzule. Tolosa mundu osotik etorritako maila handiko abesbatzen topaleku bihurtzen du, eta nazioartean ezagun egin izanaren arrazoi nagusia da ziu-rrenik.

Aurtengoari, hau da, 42. Abesbatza Lehiaketari dagokionean, 24 abesbatza ariko dira kantuan, 16 herrialdeetatik etorriak: Alemania, Bulgaria, Eslovenia, Espainia, Estatu Batuak, Euskal Herria, Filipinak, Frantzia, Hungaria, Japonia, Katalunia, Lituania, Errusia, Suitzia, Suitzia eta Ukraina. Ahots Nahasietako 10 abesbatza lehiatuko

dira Folklore eta Polifonia modalitatean; 6 Ahots Talde ariko dira Eliz Musika eta Musika Profanoan; eta 5 Haur Abesbatzen sailean.

## Euskaldunen parte-hartzea

Hiru diraurten ariko diren euskal taldeak, eta azpimarragarriena, Tolosako Hodeiertz Abesbatza-ren parte-hartzea da. Ez dira, ordea, bakarrik ariko. Ordiziako Oroith abesbatzarekin elkartuko dira Lehiaketarako. 25 urte dituzte bi abesbatzek, eta *a capella* abesbatza musikan berezitu dira, musika garaikidea eta euskal folkloreaki lehentasuna emanez. Batak zein besteak parte hartu izan dute Tolosako Abesbatza Lehiaketan, baina lehen aldiz egingo dute elkarrekin, Enrike Azurza eta Katrin Iturralderekin zuzendaritzapean.

Hirugarren euskal abesbatza

Gasteizko Crescendo Abesbatza izango da. 40 neskaz osaturiko Haur Abesbatzak Tolosako Lehiaketan parte hartu zuen 2004ean. Hiru euskal taldeek urriaren 31n parte hartuko dute, Leidorren; gasteiztarak goizean ariko dira, 11:00etan, eta tolosar eta ordiziarrak, 16:00etan. Azken hauen emandirako sarrerak, ordea, agortu direla azaldu dute Tolosako Ekinbide Etxetik. Atzo jarri zituzten salgai, eta 30 minuturen buruan saldu ziren guztiak.

## Lehiaketako sariak

Abesbatzen lana epaitzeko, ohi bezala, «abesbatzen musikan adituak diren pertsonaiez osaturiko epaimahaia» izango da, zazpi kidez osatua: Mogens Dahl (Danimarka), Florian Helgath (Alemania), Bo Johansson (Suitzia), Alina Orraca (Kuba), Ko Matsushita (Japonia), Vytautas Miskinis (Lituania) eta Xabier Sarasola beasaindarra epaimahaiburua.

Hainbat sari aukeratzeko izango da epaimahairen ardura, eta denetan garrantzitsuena, Sari Nagusia; hain zuzen ere, sari preziatu hori jasotzen duenak datorren urtean Tolosak hartuko duen Abesbatzako Sari Nagusirako txartela lortuko du. Epaimahaiaz gain, ikusleek ere izango dute zeresana, eta beste urteetan bezala, ikusleen saria banatuko dute.

## Zirkuitua, Topaketa eta Et Incarnatus

Aurreko edizioetan gertatu bezala, Tolosan ez ezik Euskal Herriko beste hainbat herritan ere gozatu ahaliko dute abesbatzen musikaz. Izan ere, Lehiaketan parte hartu-

ko duten abesbatzek 47 herritan zirkuitua burutuko dute emanaldi eskaintzeko.

Datorren astean bertan hasiko dira zirkuituarekin, baina, hainbeste itxarongabe, gaur ere gurean izango da «maila handiko abesbatzen musika» zuzenean entzuten hasteko aukera. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak eta Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako Abesbatzen Topaketa San Frantzisko elizan izango da, 20:00etan, eta Zaragozako Enchirradias eta Gipuzkoako Orereta Abesbatzak eta Kup Taldeak hartuko dute parte.

Datorren asteburuan ere Tolosako Ekinbide Etxeak bat egin duen kontzertua izango da, Erkki Pohjolaren omenez Et Incarnatus orkestrak eskainiko duena, hain zuzen. Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak azaltzen duenez, «musikari finlandiarrak Tolosako Abesbatza Lehiaketarekiko lotura handia zuen, maiz parte hartu eta babestu izan duenak, horregatik bere omenez ekitaldi bat egitea beharrezko ikusten genuen».

## Krisiak eragin zuzena

Bestalde, Arretxek Lehiaketaren inguruan atzo egin zuten aurkezpenan adierazi zuenez, «krisia nabaritu da aurten ere, eta, esaterako, irekiera emanaldia ez da izango», baina, «ohiko mailari» eustea lortu dute, eta emanaldi tarako sarrerak ere ia zko prezioetan mantendu dituzte. Hori guztia posible egin duten erakundeak eskertu zituen TEEko lehendakariak. Halaber, Hodeiertz abesbatzak Lehiaketan parte hartu duen

## » LEHIAKETA

### Datuak

- **Zer.** 42. Tolosako Abesbatza Lehiaketa.
- **Noiz.** Urriaren 29tik azaroaren 1era.
- **Antolatzailea.** Tolosako Ekinbide Etxea.
- **Abesbatzak.** 24 talde ariko dira.
- **Sarrerak.** Servikutxan (943 00 12 00/www.kutxa.net). Bihar izango da azken eguna.

### Parte-hartzaileak

#### Ahots Nahasiak.

- Extrachord (Alemania).
- Rodina (Bulgaria).
- Komorni Zbor Orfeje (Eslovenia).
- Salt Lake Choral Artists Chamber Choir (Estatu Batuak).
- University of Delaware Choral (Estatu Batuak).
- Hodeiertz - Oroith (Tolosa/Oroitzia).
- Mikrokosmos (Frantzia).
- Hamore Kobe Mixed Choir (Japonia).
- Musikhogskolans Kammarkor Pitea (Suedia).
- Coro Renaissance (Ukraina).

#### Ahots Taldeak.

- Salt Lake Vocal Artists (Estatu Batuak).
- University of Delaware Vocal Group (Estatu Batuak).
- The Chamber Choir of Asia (Filipinak).
- Anima Vocal Ensemble (Errusia).
- Callirhoe (Suitzia).
- Vocal Group Dyvo (Ukraina).
- **Haur Abesbatzak.**
- Peques del Leon de Oro (Asturias).
- Cor Infantil Amics de la Unio (Katalunia).
- Crescendo Abesbatza (Gasteiz).
- Cantemus Children's Choir (Hungaria).
- Liepaites (Lituania).

bi aldiatan berak abestu duela eta aurten ere hala egingo duela adierazi zuen. Horretarako, Lehiaketaren egunetan TEEko lehendakariordeari emango dizkio bere ardurak.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, bere aldetik, aurtengo Lehiaketan hiru euskal talde aritzea «harro egoteko modukoa» dela esan zuen, eta Hodeiertz Abesbatzak erronka handia duela gehitu zuen, «etxean ariko delako maila handiko lehiaketa batean». Horrez gain, Lehiaketak Tolosa Goxua azokarekin bat egingo duenez, parte-hartzaileek bertako kultura gertutik ezagutzeko aukera izango dutela azpimarratu zuen, ekimena babestu duten erakundeak esker-tzarekin batera.

Hain zuzen ere, Mikel Irizar eta Frantxis Lopez Landatxe, Kutxako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak hurrenez hurren, atzoko aurkezpenean izan ziren, eta «Tolosako Ekinbide Etxeak Abesbatza Lehiaketa antolatzean egiten duen lana» nabarmentzeaz gain, ekimena laguntzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Aisialdirako gune berri bat inauguratu dute, Lapurdi plaza

**Azpiegiturak** » 4.000 m<sup>2</sup> ditu gune berriak eta baita 225 m<sup>2</sup>-ko haur parkea, esertzeko bankuak eta hogeitik gora zuhaitz ere.

### ERREDAKZIOA

Rondilla kalearen luzapenean, kolektorearen obren eraginez, plaza berria sortu dute, Lapurdi plaza, hain zuzen.

4.000 m<sup>2</sup> ditu gune berriak, eta 225 m<sup>2</sup>-ko haur parkea, esertzeko

bankuak eta hogeitik gora zuhaitz ditu, besteak beste.

Udal ordezkariak izan ziren atzo goizean Lapurdi plazaren inaugurazioan, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bizilagunak izan zituen bereziki gogoan, «aspalditik ari baitira auzoan obrak jasaten».

Zonalde honetan obra horiek egitea aspaldi aurreikusitako zerbait zela gogoratu zuen, eta aurreko legegaldian zati batean egiten hasi zirela. «Bada, orain behin betiko obrak amaituta, Belate auzoko-

ei Alde Zaharrerako sarbidea hobetu zaie, aisiarako gune berria izatearekin batera».

### 221 autoentzako aparkalekua

Aipatzekoa da, plazaren azpialdean izen bera daraman aparkalekua ere badagoela. 221 autoentzako lekua du aparkalekua, horietatik 117 bertakoentzat eta 104 errota-ziokoak direlarik.

Plaza berria eraikitzeko lanek izan duten inbertsioa 1,33 milioi eurokoa izan da.



## Zerkausia konpontzen hasi dira

**AZPIEGITURAK** » Zerkausio terrazan iragazgaitasun arazoak daudela-eta, atzo hasi ziren horiek konpontzeko obrek. Zerkausia zaharberritu zuen enpresa bera izango da lan horien arduraduna, eta hiru aste beharko dituztela aurreikusi dute. Bestalde, arazo hori konpontzeaz gain, «eraikinak duen erabilera handiaren eraginez sorturiko» beste hainbat arazo ere konpontuko dituzte, hala nola, pintatzea behar duten guneak pintatu, kristalak konpondu edo berriak jarri edota barandak konpondu. I. TERRADILLOS



Atzo inauguratu zuten 4.000 m<sup>2</sup> dituen Lapurdi plaza berria. I. TERRADILLOS

## Gipuzkoako Sukaldari Gazteen Elkarteak aurkeztu dute

**Tolosa** » Fronton jatetxeko Roberto Ruiz eta Hernialdeko Felix Garrido daude Sukaltalde elkarteak.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Sukaldari Gazteen Elkarteak aurkeztu berri dute, Sukaltalde izeneko, eta bertan Tolosako bi sukaldari izango dira: Fronton jatetxeko Roberto Ruiz eta Hernialdeko Felix Garrido. Guztira hamalau sukaldari gaztek osatzen dute oraingoz elkarteak.

### «Sukaldari guztiei irekita»

Sukaltalden Gipuzkoako sukaldari desberdinak daude, baina aurkezpenaren hala ere, «sukaldari guztiei irekita» dagoela ere nabarmendu zuten. «Sukaldariak ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta euren lanbidean gehiago sakondu nahi badute ongietorriak izango dira», esan zuten. Interesa dutenek [www.sukaltalde.com](http://www.sukaltalde.com) helbidean sartu beharko dute.

Sukaltaldeko zuzendaritza-batzordea ere aurkeztu dute, lehendakaria Donostiako A Fuego Ne-

gro jatetxeko Edorta Lamo izango delarik, lehendakariordea Donostiako Xarmako Xabier Diez eta idazkaria Donostiako Kokotxako Daniel Lopez.

### Urtebetetik gora elkarlanean

Maiatzean osatu zuten taldea, baina orain urte bete edo hasi zuten elkarlana. Iñaki Galdos Gipuzkako Kanpo ekintzako ahaliduna izan zen herenegun egin zuten aurkezpenaren eta bertan, «une historikoa» zela nabarmendu zuten.

Izan ere, elkarlearen helburua

«lanbidea hobeto ezagutu eta helburu komunak lortzea da». Sukaltaldaren ekimen nagusiak sukaldari gazteen filosofia eta proposamen gastronomikoak zabaltzea izango dira.

Alde horretatik, bidea urratu dute jada, batez ere bertako kalitatezko produktuen ezagutzaren inguruan, Arabako boilurra, Idiazabalgo gazta... Prestakuntza ikastaroak ere egiten dituzte. Etorkizuanen topaketa egutegia eta elkarrekin hainbat jaduera egitea adostu dute.

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Dirua.** Duela 4 aste, diru bat topatu nuen kalean. Galdu duenak, deitu dezala 628-35 25 66 telefono zenbakira.

### LANESKAINAZA

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600-86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Garbiketak.** Uzturre Garbiketak

enpresak lau langile kontratatu nahi ditu. Interesatuak bidali argazkidun curriculumak [uzturregarbiketak@gmail.com](mailto:uzturregarbiketak@gmail.com) helbidera edo deitu 678 99 25 49 telefono zenbakira.

### ESKAINAZA

■ **Artzai txakurra.** 8 hilabete dituen artzai txakurra oparitzen dut. Interesatuak deitu 672-13 65 49 edo 943 65 24 23 telefonoetara.

## Batzorde bilera izango da etzi, 20:30ean

**Amezketak** » Hirigintza-obra, kultura, ingurumen eta ekonomi arloko batzordeen bilera izango da astelehenekoa.

### ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak jakinarazi duenez, astelehenean 20:30ean Udaletxeko pleno aretoan hirigintza-obra, kultura, ingurumen eta ekonomi arloko kontuen batzorde-

deen bilera izango da. Etziko batzorde bileran gai hauek jorratuko dituzte: obra txikiak, hirigintza kontsultak eta informazioa, burdindegiko tailerraren eskualdatze baimena, Papel Aralar SAREN Xehekapen Azterlanaren behin-betiko onarpena, Papeleraren kogenerazio planta berriaren eraikitzea, 2011. urterako Ordenantza Fiskal, udazkenean izango den Aste Kulturalako informazioa eta Agenda 21en baitan herri batzarren emaitzak.

## MUNDUKO SUKALDARITZA

EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA  
MAROKO • BREITAINIA  
INDIA • MEXIKO • VIETNAM  
ARGENTINA • LIBANO  
ITALIA • TXINA

berriekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA urriaren 29a baino lehen  
[www.berria.info](http://www.berria.info)  
[harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)  
943-30 43 45

Laguntzailea

**FAGOR**

[www.fagor.com](http://www.fagor.com)

Aukerak ezazu, bizi leustaraz

**berria**



Auzoaren itxura erabat aldatuko da Laskorain Goikoa planarekin. 1066 etxebizitza eraiki, Elosegi Parkera sarbidea indartu eta auzoa hirigunearekin lotzea dira helburu nagusiak. A.B

Udalak San Estebango auzokideei, etorkizuneko auzoa nolakoa izango den azaldu die. 2014ean hasiko diren lanek, egungo auzoaren itxura erabat aldatuko dute. 1066 etxebizitza eraiki eta merkataritza guneak irekitzea dute helburu.

## San Estebango etorkizuna

### AGURTZANE BELAUNZARAN

**A**uzokideen egoneza eta zalantzak argitu asmoz, aste honetan bildu berri dira Tolosako Udaleko Teknikariak eta San Esteban auzoko bizilagunak. Kultur Astean murgildurik diren honetan, aspaldian auzoaren etorkizunaren inguruan dabilen zurrumurruak argitu nahi zituzten. Halaxe egin ere.

Jokin Bildarratz alkatearen eta Udaleko Teknikariaren azalpenak adi adi entzun zituzten bertan bildutako auzo lagunek. Eta auzoaren etorkizuna nolakoa izango den

entzun eta ikusi zuten; batzuk begi onez, txarrez ere bai, besteek mesfidati eta beste batzuk itxaropenetsu.

Udalak 2009ko martxoan onartu zuen Plan Orokorrean, San Esteban auzoagotik behera aldatzea erabaki zen. Laskorain Goikoa plana da San Esteban auzoarena.

### 1.066 etxebizitza berri

Udalaren lehen tasuna etxebizitza eskaintza handitzea da. Laskorain Goikoa 1.066 etxebizitza egiteko asmoa dago. Hauetako %70a Babes Ofizialeko etxeak eta tasatuak izango lirarteke, 700 etxebizitza in-

guru, alegia, %30a berriz, etxebizitza libreak izango dira. Eraikinen baxuetan, merkataritza guneak egongo dira. Auzoa, komertzio gune garrantzitsu izatea baitu helburu Udalak. Lan hauek egiteko, 55 etxebizitza suntsituko dira. Honek auzo arregan ezinezona eta urduritasuna sortu zituen. Udaleko ordezkariak, bizilagunak lasaitzen saiatu ziren «legeak babesten» di-tuela esanez. «55 etxebizitzak suntsitu baino lehen, etxe berriak eginak egongo dira, inor ez da kalean geratuko», gaineratu zuten. Bizitza guztia auzoan daramaten bizilagunen kezka nabaria zen. Baita

alokairuan urteak daramatzatena ere.

Aurkeztutako planaren egileek, auzoaren kokapena azpimarratu zuten; «trenbideak herritik urrundu duen auzoan, etxebizitzak, industria, zerbitzuak eta komertzioa orden zehatzik gabe nahastu» direla aipatu zuten.

### Hirigunetik gertuago

Trenbidearen bi aldeak batzeko, San Frantzisko ibiltokiarekin lotuko duen 40 metroko kalea proposatzen du proiektuak. Horretarako, egungo tren geltokia suntsitu eta lur azpiko pasealeku baten bidez, San Esteban herriarekin lotuko litzateke. Trengeltoki berria ere lur azpiko pasealeku kokatuko litzateke. Auzokideek, aho zabalik jaso zuten berria. Proiektuarekin gustura ez eta auzoan jaiotako bizilagun beterano batek «San Esteban auzo xume bat da ez Mahattan» aipatu zuen, proiektu modernoarekin gustura ez eta.

Ferialekua ere azkenetan dagoela aipatu zuten, honen tokian, merkataritza zonaldea eta etxebizitzak eraikiko dira. Osasun etxeak bere tokian utziko dio. Baita Elosegi Parkeak ere, zonalde berde hau auzoan integratu nahi da, bertara iristeko bideak erraztuz.

Hegoaldeko Industrialdeari dagokionean berriz, zonaldea hobetu nahi da, indartu.

Aldaketaz beterik dator auzoaren etorkizuna. Honen aurrean, auzokideen kezka ere biderkatu egin ziren. Bakoitzak bere egoerari

aurre egiteaz gain, proiektuaren inguruko zalantzak sortu baitziren. Noiz hasiko da proiektua martxan? Zein etxe suntsituko dituzte? Noiz hustu beharko ditugu gure etxeak? Zeintzuk diragure esku bideak? Zergatik hainbeste garrantzi Elosegi Parkeari orain?, zirela galderetako batzuk.

Jendearen kezka argitzen saiatu ziren Udaleko ordezkariak bileran. Jokin Bildarratz alkateak, «proiektua ez da behin betikoa eta epe luzera egingo da, 2014ean hasiko gara lanekin» azpimarratu zuen. Denbora alde dutela eta, Udalak hiritarren partaidetza bultzatu nahi du. Bien arteko komunikazioa ahalik eta onena izatea dute helburu. Horretarako, auzokideak eta tolosarrak, herrian egingo diren bileretan parte hartzea bultzatu nahi dituzte. Bertan, zalantzak argitu, proposamenak jaso eta baloratu eta herritarren iritzia kontutan hartuko baita.

### Kultur Astea bukaeran da

Azken txanpan sartu da ekintzaz beteriko astea. Gaur arratsaldeko 16:00etan haurrek altxorren bila abiatuko dira. Gero haur jolasak egingo dira eta zaldi gurdian paseatuko dute. Bitartean, Mus Txapelketa jokatu dute helduonak. 18:00etan buruhandiak izango dira eta arratsaldeko hotza goxatzeko, 19:00etan, txokolate beroa hartuko dute Bonberenea txaranga alaiturik. Gauerdian, La Banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua izango da.



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua  
20400 Tolosa

### Astelehenetik ostegunera ogitartekoetan 2 pertsonentzako 2x1 eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, **aurretik tabernara deitu** dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, **harpidedun txartela** ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraungitze data, **2010eko abenduaren 31**

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza

**DENAK**  
taberna  
**2x1 eskaintza**

Izen - Abizenak: .....

Harpidedun kodea: .....

Erreserba eguna: .....

## Alurr Dantza Taldeak bere emanaldia gaur Armintzan eskainiko du

**Ibarra** » Bizkaian izango dira 19:00etatik aurrera. Bertako jai batzordeak gonbidatu du taldea.

### ERREDAKZIOA

Alurr Dantza Taldea Armintza herrian (Lemoiz, Bizkaia) ariko da gaur. 19:00etan hasiko da dantza taldearen emanaldia. Armintzako jai batzordeak gonbidatuta, lehenengo aldia izango da Alurr Dantza Taldea bertan ariko dena.

Alurr Dantza Taldeko 40 gaztek *Banintz* izenburua duen ordu bete emanaldia eskainiko dute. Tradizioaren eta berriaren arteko elkarlan bat izango da, hainbat dantza eta koreografiaren oinarrituta. Ikuskizunean, Kortesoak makil dantza, Banako, Uztai, Agurra, Obalao, Xuletino, Iekorako kate dantza, Zuberoako makil jokoa, Gipuzkoano, Fandangoa eta Arinarina dantzatuko dituzte bertarutako enbuzgarri.

Ibarrako dantza taldeak dantzazten dituen koreografia gehienak Aiert Beobidek sortuak izan dira. Musika doinuak, berriz, Alboka, Korrontzi, Tomas San Miguel eta beste hainbat talde eta musikarirenak izango dira.

Bestetik, Jagoba Astiazaran eta Iñar Sastrek, Alurr taldeko musikariek, moldaketak egin dituzte eta baita hainbat konposaketa ere. Beraz, ikuskizuna ikusi nahi duenak gaur aukera izango du Bizkaia aldean.



Udalak eta Galtzaundik duela urtebete sinatu zuten hitzarmena. HITZA

## Aduna euskararen aldeko lana zorionduz

### ERREDAKZIOA

Adunako Udalak iazko urriaren 9an sinatu zuen hitzarmena Galtzaundirekin, herriko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko. Planean 90 enpresa sartu dira, eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak ere laguntza eman du.

Hasieran, planaren sustatzaileak enprekin harremanetan jarri eta bisitak egin zituzten, enpresaz enpresa hizkuntz egoera zein zen jasotzeko. Udalak emaitzak baloratu eta jarrera eta neurri aproposena zutenak zioriontzea erabaki du, baita laguntza eta aholkularitza emateko bideak irekitzea ere.

Adunako Udalak gutunak bidali dizkie herriko zenbait enpresari, euskararen alde egiten duten lanarengatik zioriontze eta aurreantzean ere euskararen aldeko lanarekin jarraitzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzeko. Zorionduta enpresak honako

hauek dira: Marmoles Arrilanak, Urritza jatetxea, Uztartza aterpetxea, Aburuza sagardotegia, Andregegi lore ekoizpena, Arregi Etxabe JJ birziklapen enpresa, Planean 90 enpresa sartu dira, eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak ere laguntza eman du.

Plan hau abian jarri arte, Udalak ez zuen inolako lanketarik egin, nahiz eta herrian enpresa asko egoteak asko baldintzatzen duen herriaren egunerokotasuna, baita hizkuntzaren presentzia eta erabilera ere.

Nolanahi ere, plana ez zen zerotik abiatu. Sei enpresak Bai Euskarrari Ziuartagiria zuten, eta beste askok, ziuartagiririk ez eduki arren, euskararen aldeko apustu garbia zuten eginda.

## Hernaldeko X. Rolleski igoeran izena emateko aukera zabalik dago

**Kirola** » Urtero bezala, Alpino Uzturre Elkarteak antolatzen du igoera. Hilaren 23an izango da 16:00etatik aurrera.

### ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, hamargarren edizioa izango da aurtengoa. Hernaldeko Rolleski igoera hilaren 23an izango da. Tolosako Belate auzotik, 16:00etan abiatuko dira parte-hartzaileak.

Proba estilo klasikoan eta skating eran egingo da. Lasterketan parte hartu nahi dutenek modu ezberdinetan eman ahal izango dute izena. Alde batetik, 685776504 telefono zenbakira deituta edota

posta elektronikoz [alpinouzturre@begira.com](mailto:alpinouzturre@begira.com) helbidera mezu bidatatziz.

Lasterketa korritzeko parte-hartzaileek kaskoa ezinbestekoa izango dute. Parte-hartzaileek 15:30erako Belaten egon beharko dute. Hala, 16:00etan, Skating eran korritu behar dutenak aterako dira. Lehenengo zatian, 800 metro zeharkatuko dituzte. Bide hau laua da. Ondoren, 3,2 kilometroko igoera izango dute. Klasiko eran lehiatuko direnak berriz, bost minutu beranduago abiatuko dira. Eta 3,2 kilometro zeharkatu beharko dituzte.

Neska eta mutilei zuzendua da igoera hau. Eta helduek ez ezik, gazteek ere parte hartzeko aukera dute Hernaldeko Rolleski igoera honetan.

## Laburrak

### Gaur Musika Bandaren udazkeneko kontzertua

**TOLOSA** » Tolosako Musika Bandak udazkeneko kontzertua eskainiko du gaur Tolosako zerkausian. 19:30ean hasiko da emanaldia eta bertan *Carriquiri* pasodoblea, *Marl Bel Fantasia*, *Ellington*, *Ben Hur* eta *Betikoskorri* popurriaren estreinaldia izango da. Hauetaz aparte *La Gran Via* ere eskainiko dute. Guztia Luis Mari Artetxeren zuzendaritzapean izango da.

### Hirukide-Tolosala areto futbol taldea maila berria

**TOLOSA** » Hirukide-Tolosala futbol taldeak denboraldi berria hasi du. Iazko ligan txapeldun izan ondoren taldeak Euskal Ligarako igoera lortu zuen. Denboraldia galtzen hasi arren, tolosarrak mailari neurria hartzen hasi dira. Lehenengo hiru jardunaldiak jokatu eta, sei punturekin hirugarren postuan sailkatuta dago taldea. Ilusio eta gogo handiz ekin diote denboraldiari.



## Arantza Tapia, billabonatarrekin

**VILLABONA** » Arantza Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren diputatua Villabonako eragileekin elkartu zen atzo Udaletxean. Diputazioak azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen. Segidan, han bildutako herritarrek euren iritzia eta ekarpenak aurkezteko eta diputatuarekin partekatzeko aukera izan zuten. Errausketak planta, zaborra kudeatzeko eredu ezberdinak, bi-

deetako azpiegiturak edota bakea eta normalizazio politikoa izan ziren atzoko bileran landutako gaiak. Herritarrek, esaterako, Zubietan eraikitzen ari diren errausketa plantaren inguruko kezka gerturatu zizkioten Tapiari. Bertaratu zirenen artean gehienek ateko sistemaren aldeko jarrera eta errausketa plantaren aurkako adierazi zuten. Hurbiletik herritarren iritzia ezagutzeko galdetegi bat pasa zieten. HITZA

Liburua: **25€**  
DVDa: **15€**  
Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:  
943-30 43 45  
[harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



# 'Pausoz pauso...' abestia estreinatuko du herriko koruak Txintxarri Egunean

**Alegia** » Xabier Sarasolak sortu du abestiaren musika eta Felix Irazustabarrena jarri dizkio hitzak.

## ERREDAKZIOA

Aurtengo urtea berezia izaten ari da herriko abesbatzarentzat, eta horregatik, urtero egiten duten Txintxarri Eguna ere berezia, ahaztezina izatea nahi dute. Hilaren 24ean izango da Txintxarri Eguna.

Abesbatzak koru-musika lan-tzen duenez, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteari egokia iruditu zitzaion urriko emanaldi horretan kantu berri bat estreinatzea, sekula kantatu ez den doinu bat plazaratzea. *Pausoz pauso...* izena du. Felix Irazustabarrena herriarrarekin eta Beasaingo Xabier Sarasola musikagilearekin jarri ziren harremanetan. Kantuaren hitzak egiteko proposamena egin zioten lehenengoari; doinua sortu eta lau ahotsetara jartzekoa, berriz, bigarrenari. Berehala jaso zuten baietzkoa bien aldetik eta kantua sortzeko proposamena abian jarri zen.

Talde batek urteetan egindako lana islatuko zuen letra eskatu zioten Irazustabarrenari. Helduek eta haurrek batera kantatzeko moduko kantua izan zedila, eta pianoaren laguntza izan zezala eskatu zion Txintxarri Abesbatzak Sarasolari.

Xabier Sarasolak dioenez, «Txintxarrien dohainak eta mugak ondo ezagutzen ditut eta kanta kontrastatu bat egiten saiatu naiz. Horretarako ezinbestekoa zen testu egoki bat izatea eta Felixek bete betean asmatu duela uste dut. Era ezin hobean biltzen du taldearen urteetako lana eta aldi berean inor zehazki aipatzen ez duenez,



Felix Irazustabarrena eta Xabier Sarasola abestiaren partiturarekin. HITZA

edozein egoeratan kantatzeko modukoa da». Kantak hiru zati ditu: lehena, erritmikoa, bigarrena apalagoa eta hirugarrena berriro ere lehenengoaren haritik doa. «Haurrak bi ahotsetara jarriak daude eta helduak laura, guztia pianoaren laguntzaz. Kanta samurra egiten saiatu naiz, haurrak tartean izateak dezente markatu dit egiteko modua. Haurren eta helduen elkarriketa baten antzekoa da», azaltzen du konpositoreak.

## Kanturako balio duen letra

Felix Irazustabarrenaren hitzetan, «kantu baterako zela kontuan

izanda, letra jostaria egin nahi nuen, erritmoa hoskidetasuna zuena eta ez oso konplikatu. Le-tre, ekimena goraiatu nahi duen zerbait da. Egitearen aldeko hitzak. Poliki-poliki, urrats txikiak edo handiagoak emanez lorpen handiak lortu daitezkeela eta bidean aurrera egiteko pausoak eman egin behar direla adierazten du. Gure herrian, adibide oso garbia da Txintxarri Abesbatzarena. Hainbeste urtetan lanean, segi eta segi. Eta hitz hauek ez zuten konkretatu nahi, baina koruaren eta antzeko hainbat ekimenak goraiatu bai.»

Abestia bertso moldean eginda

dago. «Neurri berdinekoa deitu zaion sailean edo sartuko litzateke», dio Irazustabarrenak. «Nik hori egiten dakit eta gainera pentsatu nuen errima eta neurrien lotura barru horretan emango niola letrari erritmoa, kanturako balioko zuen zerbait».

## Txintxarrikoak, ilusioz

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak sorkuntza koralerako ematen dituen laguntzez baliatu da Txintxarri abesbatza kantua sortzeko. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bie, «kantua sortzeko pro-

## » ABESTIAREN EGILEAK



## Felix Irazustabarrena

Abestiaren letraren egilea

Felix Irazustabarrena alegiarra da. Gipuzkoako Bertsozale Elkarte-ko lehendakaria izan da hainbat urtez eta gaur egun Elkarte-ko idazkaria da. ETB 1eko *Hitzetik Hortzera* saioan lan egiten du. Herriko Zazpi Astoren Gaian Bertso Taldeko kidea eta dinamizatzailea da. Abesbatzak 50 urte bete dituen honetan inoiz baino gehiago jardun dute bi taldeek elkarrekin, zenbait emanaldi elkarrekin eginez.



## Xabier Sarasola

Abestiaren musikaren egilea

Xabier Sarasola Beasaingo musika eskolako irakaslea da eta kantu korala, biolina eta harmonia erakusten ditu. Loinatz abesbatzaren zuzendaria eta konpositorea. Txintxarri abesbatzarekin harremana du aspaldidanik, 1985ean Txintxarri abesbatzak Alemaniara egin zuen bidaiari izan baitzen, eta geroztik kontzertu batzuk elkarrekin eman dituzte.

posamenaren aurrean izan dute jarriera on, prestutasun eta ahaleginagatik. Abeslariak pozik geratu dira emaitzarekin eta ilusio handia dute Txintxarri Egunean jendaurrean erakusteko».

## Bi ikastaro antolatu dituzte azaroan egiteko

**Alegia** » Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan antolatu dituzte makrobiotika eta defentsa pertsonaleko ikastaroak.

## ERREDAKZIOA

Alegiako Kultura Batzordeak Udazkenean Kultura egitasmoa antolatzen ari da eta horren baitan bi ikastaroren deialdia zabaldu dute. Horietako bat makrobiotika ikastaroa da eta bestea defentsa

pertsonaleko tailerra. Bi ikastaroak datorren hilean egingo dira.

Makrobiotika ikastaroa asteartean izango da, azaroaren 2tik 30era bitartean. 19:00etatik 22:00etara egingo da eta 15 euro balio ditu. Defentsa pertsonaleko tailerra, berriz, azaroaren 23an eta 25ean izango da, 19:00etatik 21:00etara, eta guztira 5 euro balio-koditu.

Bi ikastaroetan izena emateko Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean egin ahal da hilaren 18tik 22ra bitartean.

## Omniumeko Espainiako Txapelketa lortu du Olaberriak

**Ikaztegieta** » Nagusitasun handiz irabazi du txapelketa txirindulariak, omniumeko sei probetan lehenengoa izan baita.

## ERREDAKZIOA

Leire Olaberria txirindulariak Pistako Espainiako Txapelketa omnium proba eskuratu du. Full-gas.org bere talde berriarekin partehartzen ari da Txapelketa horretan ikaztegiatarra. Nagusitasun

osoz eskuratu du gainera, omniuma osatzen duten sei probak irabazi baititu. Taldeetik azaldu dutenez, «zenbait probetan ez du duen guztia eman, oraindik asteburuan beste hainbat proba gelditzen baitzaizkio eta indarrak gorde dituzte».

Azto hiru proba jokatu zituzten: 500 metroak erlojupekoaren aurka, jazarpena eta scratcha. Herenegun, itzuli bateko proban 14:844ko denbora egin zuen eta bigarren izan zen Ana Usabiagak 15:627 egin zuen. Puntuaketan nahikoa izan zuen ikaztegiatarra

lau itzuli irabaztea 94 puntu lortzeko. Usabiaga ere bigarrena izan zen proba horretan 64 punturekin. Kanporaketa proban Olaberriak azken esprintean Galvezi irabazi zion.

## Beste bost proba oraindik

Espainiako Txapelketa gehiago eskuratu ditzake ikaztegiatarra, asteburuan beste bost probetan parte hartuko baitu: scratcha, jazarpeneko finala, puntuaketa, taldekako jazarpena eta taldekako abiadura.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegietea, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua Zerkausian 19:30ean.  
■ **Tolosa.** Jon&, Sugramas eta The Riff Truckers taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

### Festa

■ **Alkiza.** Itxurain elkarteak Sagar-do Festa antolatuta du asteburu honetarako. Gaur sagarra biltzera ir-tengo dira plazatik 15:00etan. Bihar, plazan bertan, mezaren ondoren bezperan bildutako sagarra txikitu eta dolarearekin lagunduta sagardoa prestatuko dute. Jaia bo-robiltzeko taloak eta trikiritxak alai-tuko dute eguna.

### Kultur astea

■ **Tolosa.** Kultur Astea San Este-ban auzoan. Arratsaldean altxo-rraren bila, mus txapelketa, haur jolasak, zaldi gurdian paseoa au-zotik, graffiti erakustaldia, bu-ruhandiak eta txokolate jatea Bon-berenea txarangak alaituta. Gaue-an La banda del jefe Bigun taldearen kontzertua. Ondoren DJ Puntzakarekin festaren jarraipena.

### Zinema

■ **Tolosa.** Gainsbourg filma Leidor aretoan 22:30ean.  
■ **Villabona.** Gurea aretoan Karate Kid filma 17:00etan eta Que se mueran los feos 19:30ean eta 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 948 56 42 48.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-gusia. 948 51 31 28.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Zumalakarregiko lanak amaitzeak

**TOLOSA** • Zumalakarregi kalea oinezko egiteko obrak amaitzeko egun gu-txi geratzen dira. Hain zuzen ere, atzo amaitu zuten bai Zumalakarregi kaleko bai eta Zumalakarregi, Rondilla, San Frantzisko eta Soldadu kale-en arteko elkarguneko galtzadaren asfaltatzea. Lan hauek Mugikortasun

Iraunkorraren Planaren barruan kokatzen dira, eta oinezkoak gune ho-rretan lehenatasuna izatea da helburu nagusia. Hala, esaterako, Triangu-loako elkargunean nahiz Zumalakarregi kalean zirkulaziorako gehienez-ko abiadura orduko 30 kilometrorra murriztuko dute. i.r.

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Naia Saizar Sarasola (Villabona).**  
Gaur urtebete. Zorionak eta muxuak etxekoan eta Migelen partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**bertako egunkaria**  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>